

g u f e  
i f a s



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

# **BARRUKO INDARKERIA KASUETAN JARDUTEKO PROZEDURA**

**2010eko apirila**

## BARRUKO INDARKERIA KASUETAN JARDUTEKO PROZEDURA

**1-** Ustez ukitua den pertsonak edo pertsona taldeak GUFeko Prebentzio Zerbitzuarengana jotzen du (Ugasko 5 bis, 1. solairua, Bilbo. Tfnoa.: 94 406 79 73); bertan aurkez daiteke kexa/salaketa, idatziz (Eredua: [“Barruko indarkeria –kexa/salaketaren idazkia”](#)).

**2-** Prebentzio Zerbitzua, kexa/salaketa jaso eta gehienez hiru eguneko epearen barruan, Zentroko zuzendaritza edo arduradunarekin harremanetan jarriko da horrek arazoa ebazteko neurriak har ditzan ahalik eta arinen. Baldin eta salaketaren xedea den pertsona Zentroko gehieneko arduraduna bada neurri horiek GUFeko Pertsonen Zuzendaritzako Saileko buruak hartuko ditu.

**3-** Zentroko zuzendaritzak edo arduradunak, Prebentzio Zerbitzuak agindeia egingo denetik gehieneko hiru eguneko epearen barruan, egoera horri irtenbidea emateko jarduketaren arduraduna izango den pertsona izendatuko du –arduradun horren laguntzarekin jardungo duena, alegia-. Hala denean, zuzendaritzak edo arduradunak zuzenean esku har dezake baldin eta ez balego tarteko agintaririk edo uste balu hori ez dela egokiena jarduteko. Behin betiko izendapena Prebentzio Zerbitzuari jakinaraziko zaio.

**4-** Izendatu den pertsona horrek kexa/salaketa jarri eta gehienez 30 eguneko epearen barruan jardungo du (salbuespena bidezkotuta dagoen kasuan izan ezik). Bere esku hartzea txosten baten jasoko da (Eredua: [“Barruko indarkeria – arduradunaren izendapena / jarduketaren erregistroa”](#)); horren kopia bat emango zaio Prebentzio Zerbitzuari.


**5-** Prebentzio Zerbitzua, kasuaren jarraipena egitearen ondoretarako, salaketa egin duen pertsonarekin edo pertsona taldearekin harremanetan jarriko da pertsona izendatuak bidezkoak izango diren jarduketak burutu eta hilabete igaro ostean.

► Hilabete hori igaro ondoren esku hartzea eragingarria izan bada (hau da, indarkeria kasu gehiagorik gertatu ez bada) Prebentzio Zerbitzuak kasuaren jarraipenarekin jarraituko du eta berriz ere salaketa egin duen/duten pertsonarekin/ekin harremanetan jarriko azken jakinarazpena egin eta 4 eta 12 hileko epeetan.

► Baldin eta esku hartzea ez bada eragingarria izan alderdi salatzaileak –uste badu prozedurarekin jarraitu behar duela- ondoko eredua bete behar du: [“Barruko indarkeria-balorazio txostena”](#). Kasu honetan eta eragingarritasun eza antzeman denetik zenbatuko den gehieneko 7 eguneko epearen barruan Prebentzio Zerbitzuak agindua egingo dio zuzendaritzari horrek, gehienez 3 eguneko epearen barruan, esku hartzeko taldea eratu dezan. Talde horretan Zentroko pertsonal propioa (zuzendaritza, arduraduna edo horrek eskuordetuko duen pertsona barne), prebentzioko eskuorde bat eta Prebentzio Zerbitzuko kide bat egongo dira.

Esku hartzeko talde honek kasua aztertuko du eta aplikatu beharreko neurriak proposatuko ditu lehen bilera egin eta gehienez 7 eguneko epearen barruan.

Prebentzio Zerbitzuak kasuari dagokionez egingo duen jarraipena ondoko eredu honetan jasoko da: [“Barruko indarkeria – jarraipen txostena”](#).



Kortxeteen artean esku hartzeko gehieneko epea azaltzen da (bidezkotuta egongo diren salbuespenetan izan ezik). Honi buruzko informazioa zabalteko prozeduraren deskripzioa kontsultatu behar da.

## BARRUKO INDARKERIA –KEXA/SALAKETA IDAZKIA

<b>ID. ESPEDIENTEA:</b>	Salatzailearen izena + Salaketaren data (uuuu/hh/ee).
<b>KEXA/SALAKETAREN DATA:</b>	
<b>PERTSONA SALATZAILEAREN DATUAK</b>	
<b>Izen-deiturak:</b>	
<b>Lanpostua:</b>	
<b>Harremanetarako sistema:</b>	Telefonoa:
	E-maila:
<b>SALATU DEN PERTSONAREN DATUAK</b>	
<b>Izen-deiturak:</b>	
<b>Lanpostua:</b>	
<b>SALATU DIREN GERTAEREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Lan Zentroa:</b>	
Gertaeren deskripzioa (ahal bada, datak jarri):	
<b>Salatzailearen sinadura:</b>	



**BARRUKO INDARKERIA – JARRAIPEN TXOSTENA**

<b>ID. ESPEDIENTEA:</b>	Salatzailearen izena + Salaketaren data (uuuu/hh/ee).
<b>PREBENTZIO ZERBITZUAK EKINTZEN JARRAIPENA EGITEA</b>	
<p>Datak eta bidezko iruzkunak jaso behar dira.</p> <p><b>1-</b> Salaketa noiz jaso zen:</p> <p><b>2-</b> Zentroko zuzendaritzari jakinaraztea:</p> <p><b>3-</b> Jarduteko ardura duen pertsona izendatzea:</p> <p><b>4-</b> Neurriak hartzea:</p> <p><b>5-</b> Neurrien eragingarritasuna:</p>	
<b>Prebentzio Zerbitzua:</b>	

## BARRUKO INDARKERIA – BALORAZIO TXOSTENA

<b>ID. ESPEDIENTEA:</b>	Salatzailearen izena + Salaketaren data (uuuu/hh/ee).
<b>PERTSONA SALATZAILEAREN DATUAK</b>	
<b>Izen-deiturak:</b>	
<b>Lanpostua:</b>	
<b>Balorazioaren data:</b>	
<b>EGOERAREN BALORAZIOA</b>	
<p>Pertsona salatuari dagokionez, egon al da beste indarkeria egoerarik?</p> <p>Baldin eta erantzuna baiezkoa bada, (ahal bada datak ere jaso) nolakoak izan dira indarkeria kasu berri horiek?</p>	
<b>Salatzailearen sinadura:</b>	